

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN KONTRATAZIO BATZORDEAREN AKTA

Bilbon, 2019ko abenduaren 18an

Idazkariak aurretiaz egindako deialdiari jarraiki, 2019ko abenduaren 12ko datarekin, ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN (EEE) Kontratazio Batzordea bildu da, eta bertan honako kide hauek izan dira:

BATZORDEKIDEAK

Enrique Monasterio Beñaran jauna, EEEko Garapen eta Berrikuntzako zuzendaria eta Kontratazio Batzordearen Presidentea.

Javier Marques Gonzalez jauna, EEEko zuzendari teknikoa.

Rosa Madina Romero andrea, EEEko Ekonomia-Finantzako zuzendaria.

Álvaro Colón Barriocanal jauna, EEEko Idazkari Nagusia.

IDAZKARIA EZ BATZORDEKIDEA

Iker Alaña Zorrilla jauna, EEEko Kontratazio Ataleko arduraduna.

Gai-zerrenda jorratzeko, honako eduki hauen arabera:

1. *Prozedura irekiaz, EAEKO ITSAS HONDOAREN GEOLOGIAREN IKERKETAREN ZERBITZU KONTRATUA (ERG/19/002)ren kontrataziorako aurkeztutako eskaintzen balorazio txostena.*
2. *Kontratu txikien zerrenda.*
3. *2020 urteko Kontratazio Planaren proposamena onartzea, hala badagokio.*
4. *Beste gai batzuk.*
5. *Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.*

1. **Prozedura irekiaz, EAEKO ITSAS HONDOAREN GEOLOGIAREN IKERKETAREN ZERBITZU KONTRATUA (ERG/19/002)ren kontrataziorako aurkeztutako eskaintzen balorazio txostena.**

Aipatutako kontratuaren Balorazio Txostena, Kontratazio Batzordearen deialdiarekin batera bidali dena, Alex Franco jaunak egin du, kontratuaren arduradun gisa, eta Luis Muñoz jaunak, EEEko Geologia eta Meatzaritza Sailaren Zuzendari moduan, berretsi du.

Batzordeko kideei aipatutako kontratuaren balioespen txostenaren eduki nagusia azaldu zaie eta baita ere bertan azaltzen den esleipen proposamena.

Ondoren, eman beharreko azalpenak eta zehaztapenak entzun eta gero, eta Balorazio Txostenak SPKLaren baldintza formalak betetzen dituela egiaztatu ondoren, Batzordeko kideek aho batez erabaki dute Kontratuaren Arduradunak egindako Balorazio Txostenean azaltzen den EAEKO ITSAS HONDOAREN GEOLOGIAREN IKERKETAREN ZERBITZU KONTRATUA (ERG/19/002) kontratuaren esleipen proposamena Kontratazio organoari helaraztea, honako baldintzetan:

<<Aurkeztu ziren eskaintzen txostena eta balioespenaren emaitzak ikusita, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen eskaintza prezio-kalitate erlazio onena duena dela izendatzea proposatzen da, 139.680 €ngatik, eta bere eskaintza aurkeztutako baldintzetan.>>

2. Kontratu txikien zerrenda.

Batzordekideei EEEK esleitutako kontratu txikien zerrendaren berri eman zaie, Kontratazio Batzorde honen azken bileratik hona egindakoak, hain zuzen ere.

3. 2020 urteko Kontratazio Planaren proposamena onartzea, hala badagokio.

Batzordekideek 2020ko Kontratazioaren Urteko Planaren proposamena aztertu eta onartu egin dute, eta kontratazio organoari bidaliko zaio ebazpen arrazoitua eman dezan 2020ko Kontratazioaren Urteko Plana onartuz, egokitzat jotzen baldin badu.

4. Beste gai batzuk.

Ez da beste gairik izan.

5. Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.

Bileraren akta idazteari ekin zaio eta irakurri ondoren, aho batez izan da onartua.

Bilera amaitu eta gero, akta hau sinatzeko eman zaie, eta bertan EEE ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEko Kontratazio Batzordeko presidentek eta idazkariak izenpetu dute.

Enrique Monasterio Beñaran jn.
Kontratazio Batzordeko presidentea

Iker Alaña Zorrilla jn.
Kontratazio Batzordeko idazkaria